Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

341

3/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 13koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostu-zerrenda onartzen duena.

2/1993 Legeak, otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegoei buruzkoak, irakaskuntzaren funtzio publikoa egituratzen eta antolatzen duen II. tituluko I. kapituluan lanpostuen zerrendak arautzen ditu, oinarrizko printzipioak xedatuz eta zerrendak taxutzeko orduan jarraitu behar diren prozedura-bideak adieraziz.

Bestalde, 4. artikuluaren l) letrak, lanpostuen zerrendak onartzeko aginpidea Eusko Jaurlaritzari aitortzen dion Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak, uztailaren 6koa, 5. artikuluaren h) letran xedatutakoarekin bat etorriz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari ematen dio lanpostuen zerrendak proposatzeko eskumena.

Aipatu legezko testuaren 5. artikuluak lanpostuen zerrendek izan beharko duten gutxieneko edukia eta lanerako behar diren betekizunak zehazten ditu; horien artean nahitaez jaso beharko dira lanari esleitutako hizkuntza-eskakizuna eta nahitaezkotasun-data, lanpostua kasu bakoitzean dagokion talde, kidego, eskala edo kategoriari atxikitzea eta, azkenik, funtzionarioentzat bakarrik diren lanpostuak izanez gero, berariazko osagarria eta hornikuntza-sistema.

Aurrekoan oinarrituta, eta abenduaren 11ko 342/2001 Dekretua, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa arautzen duena, eta abenduaren 11ko 343/2001 Dekretua, Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetarako hizkuntza-eskakizunak eta horien nahitaezkotasun-datak zehazteko irizpideak ezartzen dituena, argitaratu zirelarik, abenduaren 11ko 344/2001 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren Lanpostu Zerrenda onartu zuen.

Azken Dekretu hori aldatu beharra dago, bertan indarrean jarri zen bost urteko lehen fasea, Ikuskaritzako lanpostu bakoitzaren hizkuntza-eskakizunaren nahitaezkotasun-datari zegokiona, bukatu delako. Horren arabera, nahitaezkotasun-data 2006ra arte zuten lanpostuetarako hizkuntza-eskakizuna indarrean dago

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

341

DECRETO 3/2009, de 13 de enero, por el que se aprueba la Relación de Puestos de Trabajo de la Inspección de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de Enseñanza No Universitaria de la CAPV regula en el Capítulo I de su Título II, dedicado a la estructura y organización de la función pública docente, la figura de las relaciones de puestos de trabajo, señalando con respecto a ella los principios básicos, así como los cauces procedimentales que deben observarse en su elaboración.

Por su parte, la letra l) del artículo 4, en congruencia con la letra h) del artículo 5 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de Función Pública Vasca que reconoce la competencia para la aprobación de las relaciones de puestos de trabajo al Gobierno, reserva la facultad de propuesta de las relaciones de puestos de trabajo docentes al Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

De esta forma, el artículo 5 del citado texto legal dispone el contenido mínimo que en cualquier caso deben contener las citadas relaciones de puestos de trabajo, así como los requisitos exigidos para su desempeño, entre los que necesariamente debe figurar el perfil lingüístico asignado y la fecha de preceptividad; la adscripción al grupo, cuerpo o escala o categoría laboral que en cada caso corresponda y, por último, tratándose de puestos reservados a funcionarios y funcionarias, el complemento específico y el sistema de provisión.

En base a lo anterior y justificado por la publicación del Decreto 342/2001, de 11 de diciembre, por el que se regula la organización de la Inspección de Educación en la CAPV, así como por la del Decreto 343/2001, de 11 de diciembre, que establece los criterios para la determinación de los perfiles lingüísticos y las fechas de preceptividad para los puestos de trabajo de la Inspección de Educación, el Decreto 344/2001, de 11 de diciembre, aprobó la Relación de Puestos de Trabajo de la Inspección de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Este último Decreto necesita ser modificado debido a la finalización de la primera etapa de cinco años del marco temporal vigente en el mismo, que determinaba la fecha de preceptividad del perfil lingüístico de cada puesto de Inspección. Por ello, los puestos que tenían fecha de preceptividad hasta el 2006 tienen que pasar

jada, eta nahitaezkotasuna 2011ra arte zutenak data horrekin mantenduko dira, zerbitzu-premiengatik eskakizun hori indarrean duten lanpostuak izan ezik.

Horrez gain, 276/2007 Errege Dekretu berriak, irakasleen kidegoetara sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko araudia onartzen duena, ikuskaritza-funtziora sartzeko baldintzak aldatu ditu «Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoan sartzea» izeneko III. Kapituluan, betekizun hauek ezarriz: goi-mailako titulazioa izatea, irakaskuntzaren funtzio publiko osatzen duten kidegoetako batekoa izatea, horietako kidego batean karrerako funtzionario gisa gutxienez sei urteko antzinatasuna eta iraupen bereko irakaskuntza-esperientzia izatea, eta deialdia egin duen Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialaren ezagutza egiaztatzea, bertako araudiaren arabera.

Beste alde batetik, gaur egungo Lanpostu Zerrendan (LPZ), abenduaren 11ko 344/2001 Dekretuan ezarria, guztira 20 espezialitate jaso dira. Lanpostuak espezialitate jakin batzuen arabera egituratze hori Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuen plantilla finkatzeko 1988ko irailaren 9ko Aginduak ezarri zuen. Gaur egun, sartzeko betekizunak zehazten dituen 276/2007 Dekretua onartu delarik, ez da posible lanpostuak espezialitateen arabera izendatzeko prozedura hori mantentzea, ezin delako lanpostuak eskuratzeko berariazko betekizunik ezarri.

Azkenik, kontuan hartu behar da abenduaren 19ko 15/2008 Legea onartu berri duela Eusko Legebiltzarrak. Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan zenbait irakasle-kidego sortu du, kidego beregain gisa, eta, haien artean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskatzaileen kidegoa. Era horretan, Euskal irakaskuntzako funtzio publikoaren antolamendua osatu egin da, eta horregatik, lanpostuen zerrendak gertakizun hori islatu behar du.

Hori guztia dela-eta, Dekretu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren Lanpostu Zerrenda aurrez aipatu araudira egokitzea, lanpostu bakoitzerako Hezkuntzako Ikuskariaren izendapen orokorra baliatuz, salbuespen batekin: abenduaren 11ko 342/2001 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa arautzen duena, ezarritako Lurraldeburutzak eta Ikuskaritza Nagusiak.

Horri jarraiki, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, eta erabakia Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko urtarrilaren 13an egindako bileran aztertu ondoren honako hau

a ser de preceptividad vencida y los puestos que tenían fecha de preceptividad hasta el 2011 se mantienen con esta fecha, con excepción de los que, por necesidades de servicio, pasan a ser de preceptividad vencida.

Además, el nuevo Real Decreto 276/2007 por el que se aprueba el Reglamento de ingreso, accesos y adquisición de nuevas especialidades, en su Capítulo III, titulado «Del acceso al Cuerpo de Inspectores de Educación» modifica las condiciones de acceso a la función inspectora estableciendo la posesión de una titulación superior, la pertenencia a alguno de los cuerpos que integran la función pública docente, la acreditación de una antigüedad mínima de seis años como funcionario de carrera en alguno de esos cuerpos junto con una experiencia docente de igual duración y la acreditación del conocimiento de la lengua cooficial de la Comunidad Autónoma convocante, de acuerdo con su normativa.

Por otra parte, la actual Relación de Puestos de Trabajo (RPT) establecida en el Decreto 344/2001, de 11 de diciembre, contemplaba un total de 20 especialidades. Esta estructuración de puestos en base a determinadas especialidades tenía su origen en la Orden de 9 de septiembre de 1988, que determinaba la plantilla de puestos de trabajo de la Inspección Educativa. Actualmente, con la aprobación del Real Decreto 276/2007 antes mencionado que fija los requisitos para el acceso, no es posible mantener esta denominación de puestos en función de especialidades, porque no se puede establecer ningún requisito específico para el acceso a los mismos.

Por último, debe tenerse en cuenta igualmente la reciente aprobación de la Ley 15/2008, de 19 de diciembre, de creación de diversos cuerpos docentes de la enseñanza no universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Dicha Ley ha creado, entre otros, el Cuerpo de Inspectores e Inspectoras de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el carácter de Cuerpo propio, completando, así, la ordenación de la función pública docente vasca y esa circunstancia ha de reflejarse en la Relación de Puestos de Trabajo.

Por todo ello, el objeto del presente Decreto es adecuar la Relación de Puestos de Trabajo de la Inspección de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco a la normativa antes citada, utilizando para cada puesto la denominación genérica de Inspector o Inspectora de Educación, con la excepción de las distintas Jefaturas Territoriales y puestos de la Inspección Central establecidos en el Decreto 342/2001, de 11 de diciembre, por el que se regula la organización de la Inspección de Educación en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 13 de enero de 2009,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoko eta Hezkuntza Administrazioaren Zerbitzurako Ikuskarien Kidegoko funtzionarioentzako Dekretu honetako eranskinean ageri den lanpostuen zerrenda onartzen da. Lanpostu zerrenda horrek eraginak izango ditu 2008ko abenduaren 30ean.

2. artikulua.– Dekretu honen eranskinean jasotako lanpostuei urteko 20.612,75 euro esleituko zaizkie, honela banakatuak:

– Berariazko osagarri orokorra: 17.287,28 euro urtean.

– Dedikazio bereziko osagarria, bigarren eta bosgarren maila arteko kapitalizazioetatik eratorria: 3.325,47 euro urtean.

Dedikazio bereziko osagarriaren lehen maila egiaztatu duten ikuskariek urtean 1.068,95 euro gehiago jasoko dituzte, goian aipatu kopuruez gain.

3. artikulua.– Jarraian adieraziko diren lanpostuak dituzten ikuskariek berariazko osagarri gehigarriak izango dituzte, urteko guztizko kopuru hauetan:

Lanpostua	Urteko kopurua (eurotan)
Ikuskari nagusia	15.186,36
Ikuskari zentrala	7.098,80
Lurraldeburua	5.447,86

4. artikulua. – Ikuskaritza-zonalde guztietan zonaldeburu bat egongo da Zonaldeburutzaren egitekoak betetzeko. Horregatik, urtean 2.750,69 euroko berariazko osagarri gehigarria jasoko du. Zonaldeburu hauek merezimendu-lehiaketen bidez hautatuak izango dira ikuskaritza-zonalde bakoitzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoko eta Hezkuntza Administrazioaren Zerbitzurako Ikuskarien Kidegoko funtzionarioen artetik, eta izendapena sei urterako izango da.

5. artikulua.– Berariazko osagarriaren barne, urteko guztizko kopuruak hilero banatuko dira, abenduaren 28ko 15/2007 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2008ko Aurrekontu Orokorrak onartu dituena, 8. atalaren 21. artikuluan edo ondorengo aurrekontu-legeetan arautzen den moduan.

DISPONGO:

Artículo 1.– Se aprueba la relación de puestos de trabajo reservada a personal funcionario del Cuerpo de Inspectores e Inspectoras de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco y del Cuerpo de Inspectores al Servicio de la Administración Educativa, que figura en el anexo de este Decreto. Dicha relación de puestos de trabajo tendrá efectos de 30 de diciembre de 2008.

Artículo 2.– Los puestos de trabajo incluidos en el anexo de este Decreto tienen asignados, en concepto de complemento específico, la cuantía de 20.612,75 euros/año, cantidad cuyo desglose es el siguiente:

– Complemento específico general: 17.287,28 euros/año.

– Componente de especial dedicación procedente de las capitalizaciones de los grados segundo a quinto: 3.325,47 euros/año.

Aquel personal que haya acreditado el primer grado del componente de especial dedicación percibirá, adicionalmente a las cantidades arriba indicadas, 1.068,95 euros/año.

Artículo 3.– Los inspectores e inspectoras que ocupen los puestos que a continuación se indican, tendrán a su vez el siguiente complemento específico adicional, en cuantías anuales integras:

Puesto	Importe anual (en euros)
Inspector o inspectora general	15.186,36
Inspector o inspectora central	7.098,80
Jefe o jefa territorial	5.447,86

Artículo 4.– En todas las zonas de Inspección habrá un inspector o inspectora que desempeñe las funciones asignadas a dichas Jefaturas de zona, que percibirá adicionalmente un complemento específico adicional de 2.750,69 euros/año. Estos inspectores o inspectoras serán seleccionados por medio de un concurso de méritos entre los funcionarios y funcionarias del Cuerpo de Inspectores e Inspectoras de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco y del Cuerpo de Inspectores al Servicio de la Administración Educativa asignados a cada zona de Inspección, siendo su nombramiento para un período de seis años.

Artículo 5.– Todas las cuantías anuales íntegras comprendidas en el complemento específico se distribuirán mensualmente según se regula en el artículo 21 apartado 8 de la Ley 15/2007, de 28 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008, o en las Leyes de presupuestos subsiguientes.

6. artikulua.– Zerbitzu-eginkizunaren erregimenean Hezkuntza Ikuskaritzan lanpostua duten irakasleek jatorriko kidegoari dagokion ordainsaria jasoko dute. Horrez gain, osagarri gehigarri bat kobratuko dute, jatorriko ordainsari horren eta Hezkuntza Ikuskariaren lanpostuari dagokionaren arteko aldea berdintze aldera.

7. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoko eta Hezkuntza Administrazioaren Zerbitzurako Ikuskarien Kidegoko ikuskariak 2. hizkuntza-eskakizuna indarrean duten lanpostuetara atxikiak geratuko dira dagokien Lurralde Historikoko lantokian, irakaskuntzarako 2. hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokideren bat egiaztatzen ez dutenak izan ezik; azken horiek nahitaezkotasun-data 2011ra atzeratu zaien lanpostuetara atxikiak geratuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lehendabizikoa.– Abenduaren 11ko 344/2001 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa arautzen duena (2001eko abenduaren 21eko EHAA), indargabeturik geratuko da.

Bigarrena.– Indargabeturik geratuko dira, halaber, Dekretu honetan ezarritakoaren aurka doazen lerrun bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko urtarrilaren 13an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

Artículo 6.– El personal docente que desempeñe puestos de trabajo en la Inspección de Educación en régimen de comisión de servicios, percibirá las retribuciones propias del cuerpo de procedencia. Además percibirá un complemento adicional por la diferencia entre aquellas y las que corresponden al puesto de inspector o inspectora de Educación.

Artículo 7.– Los inspectores e inspectoras del Cuerpo de Inspectores e Inspectoras de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco y del Cuerpo de Inspectores al Servicio de la Administración Educativa quedarán adscritos a los puestos con perfil lingüístico 2 con fecha de preceptividad vencida del centro de trabajo del Territorio Histórico en el que están destinados, con la excepción de quienes no tengan acreditado el perfil lingüístico 2 de la docencia o equivalente, que quedarán adscritos a los puestos con fecha de preceptividad diferida a 2011.

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

Primera.– Queda derogado el Decreto 344/2001 de 11 de diciembre (BOPV del 21 de diciembre de 2001) por el que se aprueba la relación de puestos de trabajo de la Inspección de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Segunda.– Quedan derogadas también todas aquellas disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo establecido en el presente Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto será de aplicación a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de enero de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

ERANSKINA

LANPOSTU-ZERRENDA

Arabako Hezkuntza Ikuskaritza.
Lantokia: Vitoria-Gasteiz.
Kidegoa: Hezkuntza Ikuskaritza.

ANEXO
AL DECRETO 3/2009, DE 13 DE ENERO

RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO

Inspección de Educación de Álava.
Centro de trabajo: Vitoria-Gasteiz.
Cuerpo: Inspección de Educación.

Lanpostuak	Hornikuntza-modua	Taldea	Hizkuntza-eskakizuna	Nahitaezkotasun-data	Langile-kopurua
Lurraldeburua	Izendapen askea	A	HE2	Indarrean	1
Ikuskaria	Lehiaketa	A	HE2	Indarrean	9
Ikuskaria	Lehiaketa	A	HE2	2011	2

Puestos	*Forma de provisión*	*Grupo*	*Perfil lingüístico*	*Fecha de preceptividad*	*Dotación*
Jefe o jefa Territorial	*Libre designación*	*A*	*PL2*	*Vencida*	*1*
Inspector o inspectora	*Concurso*	*A*	*PL2*	*Vencida*	*9*
Inspector o inspectora	*Concurso*	*A*	*PL2*	*2011*	*2*

Bizkaiko Hezkuntza Ikuskaritza.
Lantokia: Bilbao.
Kidegoa: Hezkuntza Ikuskaritza.

Inspección de Educación de Bizkaia.
Centro de trabajo: Bilbao.
Cuerpo: Inspección de Educación.

Lanpostuak	Hornikuntza-modua	Taldea	Hizkuntza-eskakizuna	Nahitaezkotasun-data	Langile-kopurua
Lurraldeburua	Izendapen askea	A	HE2	Indarrean	1
Ikuskaria	Lehiaketa	A	HE2	Indarrean	37
Ikuskaria	Lehiaketa	A	HE2	2011	7

Puestos	*Forma de provisión*	*Grupo*	*Perfil lingüístico*	*Fecha de preceptividad*	*Dotación*
Jefe o jefa Territorial	*Libre designación*	*A*	*PL2*	*Vencida*	*1*
Inspector o inspectora	*Concurso*	*A*	*PL2*	*Vencida*	*37*
Inspector o inspectora	*Concurso*	*A*	*PL2*	*2011*	*7*

Gipuzkoako Hezkuntza Ikuskaritza.
Lantokia: Donostia-San Sebastián.
Kidegoa: Hezkuntza Ikuskaritza.

Inspección de Educación de Gipuzkoa.
Centro de trabajo: Donostia-San Sebastián.
Cuerpo: Inspección de Educación.

Lanpostuak	Hornikuntza-modua	Taldea	Hizkuntza-eskakizuna	Nahitaezkotasun-data	Langile-kopurua
Lurraldeburua	Izendapen askea	A	HE2	Indarrean	1
Ikuskaria	Lehiaketa	A	HE2	Indarrean	19
Ikuskaria	Lehiaketa	A	HE2	2011	2

Puestos	*Forma de provisión*	*Grupo*	*Perfil lingüístico*	*Fecha de preceptividad*	*Dotación*
Jefe o jefa Territorial	*Libre designación*	*A*	*PL2*	*Vencida*	*1*
Inspector o inspectora	*Concurso*	*A*	*PL2*	*Vencida*	*19*
Inspector o inspectora	*Concurso*	*A*	*PL2*	*2011*	*2*

Gipuzkoako Hezkuntza Ikuskaritza.
Lantokia: Eibar.
Kidegoa: Hezkuntza Ikuskaritza.

Inspección de Educación de Gipuzkoa.
Centro de trabajo: Eibar.
Cuerpo: Inspección de Educación.

Lanpostuak	Hornikuntza-modua	Taldea	Hizkuntza-eskakizuna	Nahitaezkotasun-data	Langile-kopurua
Ikuskaria	Lehiaketa	A	HE2	Indarrean	5

Puestos	*Forma de provisión*	*Grupo*	*Perfil lingüístico*	*Fecha de preceptividad*	*Dotación*
Inspector o inspectora	*Concurso*	*A*	*PL2*	*Vencida*	*5*

Ikuskaritza Zentrala.
Lantokia: Vitoria-Gasteiz.
Kidegoa: Hezkuntza Ikuskaritza.

Inspección Central.
Centro de trabajo: Vitoria-Gasteiz.
Cuerpo: Inspección de Educación.

Lanpostuak	Hornikuntza-modua	Taldea	Hizkuntza-eskakizuna	Nahitaezkotasun-data	Langile-kopurua
Ikuskari nagusia	Izendapen askea	A	HE2	Indarrean	1
Ikuskari zentrala	Izendapen askea	A	HE2	Indarrean	3

Puestos	*Forma de provisión*	*Grupo*	*Perfil lingüístico*	*Fecha de preceptividad*	*Dotación*
Inspector o inspectora general	*Libre designación*	*A*	*PL2*	*Vencida*	*1*
Inspector o inspectora central	*Libre designación*	*A*	*PL2*	*Vencida*	*3*